

# Zerk desberdintzen gaitu?

## > IKASTOLA GARA

- ▶ Ikasketa prozesuan zehar erdigunea izango zara eta irakaslea bidelagun izango duzu.
- ▶ Tutoretza pertsonalatupei eta digitalizazioari esker, ikasketak zure egoera pertsonalera moldatu ahal izango dituzu.
- ▶ Lanerako eta bizitzarako ezinbestekoak diren beste hainbat kompetentzian trebatuko zaitugu; konfiantza, izaera kooperatiboa, sortzailea, analitikoa, kritikoa eta eraldatzailea sustatuko ditugu.

## > KOOPERATIBA GARA

- ▶ Laneratzera bideratutako kalitatezko ikasketa praktikoa eta berritzaileak eskaintzen ditugu.
- ▶ Mondragon Korporazioaren parte izateak Inguruko enpresen eskakizunei egokitutako ikasle profilak trebatzeko aukera ematen digu.

## > 30 URTEKO ESPERIENTZIA

Egindako ibilbideak etorkizun handiko zikloetan espezializatzeko hautua egitera eraman gaitu:

- ▶ OSASUN LARRIALDIAK
- ▶ ERIZAINZAKO ZAINZA OSAGARRIAK
- ▶ MIKROINFORMATIKA SISTEMAK ETA SAREAK
- ▶ GIZARTE ETA KIROL ANIMAZIOAREN IRAKASKUNTZA



 arizmendi.pro.eu  arizmendipro [www.arizmendi.eu](http://www.arizmendi.eu)

FERIXALEKUA - Otolara Lizentziaduna 8, 20500 Arrasate  
Tel. 943 77 20 25 - lanbideheziketa@arizmendi.eu

# Osasun larrialdia

ERDI MAILAKO  
HEZIKETA ZIKLOA

» Motibatzen  
zaituen ankerak



## »» OSASUN LARRIALDIAK

### Aukeratzeko 3 arrazoi

#### Osasun arloko lan eskaera handia

Bizi berri dugun osasun testuinguruak agerian utzi du osasun arloko profesional gaituen beharra. Osasun teknikoaren lan eskaria nabarmen igo da azken urtean, baita larrialdi individual zein kolektiboetan, eta hasierako osasun eta laguntza psikologikoan ere. Gure ikasleen laneratze tasa da horren adierazle.

1

#### Anbulantzietan lan egiteko ezinbesteko titulua

Ikasketa hauek osasungintzako beste esparru baterako atea irekiko dizkizu, ambulanzietan lan egiteko derrigorrezkoa baita kualifikazio hau izatea.

2

#### Irakasgaiak balioztatze aukera

Osasunarekin zerikusia duen beste zerbait ikasi baduzu aurretik, irakasgaiak balioztatze aukera izango duzu, batez ere profesionaltasun ziurtagiriekin erlazionatutakoak. Eta ikasten jarraitu nahi baduzu ere, bidea erraztuko dizugu.

3

#### »» ZERTAN EGINGO DUT LAN?

- » Osasun-garraioko teknikaria.
- » Osasun-larrialdietako teknikaria.
- » Teleguntzako operadorea.
- » Urgentziak eta larrialdiak koordinatzeko zentroetako operadorea.

#### »» PRESTAKUNTZA PLANA

##### 1.IKASTURTEA

Ibilgailuaren mekanikako mantentze-lan prebentiboak / 99 ORDU  
Osasun-zuzkidura / 132 ORDU  
Hasierako osasun-laguntza larrialdi-egoeretan / 252 ORDU  
Pazienteak ebakatu eta lekualdatzea / 231 ORDU  
Laguntza psikologikoa larrialdi-egoeretan / 99 ORDU  
Telearrialdiak / 66 ORDU  
Oinarrizko anatomofisiologia eta patologia / 99 ORDU  
Ingeles teknikoa / 33 ORDU

##### 2.IKASTURTEA

Osasun-logistika larrialdietan / 147 ORDU  
Osasun-laguntza berezia larrialdi-egoeretan / 252 ORDU  
Laneko prestakuntza eta orientabidea / 105 ORDU  
Enpresa ekimen sortzailea / 63 ORDU  
Larrialdi plana / 63 ORDU  
\*Lantokiko prestakuntza / 380 ORDU

\* Ordu hauek balioztatze aukera, sektorean urtebete baino gehiago lanean arituz gero edota bolondres lanak egin badituzu Gurutze Gorrian edo DYAn.

» 1.620 ORDU  
TEORIKO-PRAKTIKO

» 380 PRAKTIKA-ORDU  
LANTOKIETAN

Zer diote ikasleek guri buruz?

Sartu!

